

Nafarroako Esaera Zaharrak. Baraibar.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Baraibar.

- 300 *Adiur txarreko jendeak dire.*
Itxura edo oitura gaiztoko jendeak.
- 347 *Bat eman da bi artu? gure etxin ez berriz sartu.*
Lotsagabeari ateak itxi egiten zaizkio.
- 372 *Degun gutxi, degun beti.*
Gutxi bada ere, izan dezagun beti.
- 393 *Eskuarte pixkoat badauke. Eskuarte ona dauke. Eskuartean sartu.*
Ondasuna eskuratu duenaz esaten da.
- 446 *Jainkoak adiur onekoa egin zaitzala.*
Zintzoa ta biotz-bera.
- 492 *Ollo gosea kantari: neskatz asea dantzari.*
- 509 *San Bartolomek ezkeru, Albisu-ko tellerin goizteria presko.*
San Bartolome abuztuaren 24'an.
- 542 *Usteak, erdie ustela.*
Uste nuen ba, uste nuen ba...
- 552 *Martin tin-tin,*
errege ta sorgin,
tipule ta gatz,
Martin kalabaza.
- Jostaketan kantatzen direnak.
- 553 *Amarrak: onak izango ttuk (dituk) atsoen (atsoaren) marmarrak!*
- 554 *Bazkaltzekoan, zopa artzen asteen, denak ixil.*
Aurretik berriketan ari baziren ere.
- 555 *Berriketa asko duenak, ongutxi.*
- 556 *Bere alde(r)ako ez dago burutik.*
Bere gauzetarako ongi dago burutik.
- 557 *Erregalatutako astoari ortzetara ez begiratu.*

Erderaz eta beste izkuntzetan ere bada esaera ori (astoari ordeztaldiari).

- 558** *Eskuko beatzak ere ez dituk berdiñek, baldin ez badittuk uzten lengo griñek, lanak emango ttik (dizkik), neska pipirriñek.*
- 559** *Etxeko labatzak jakitten dittu etxeko berri(a)k.*
- 560** *Ezer ez duena emateko prest.*
- 561** *Gogo onez betea dago infernua.*
(Betelu-ko esaera omen). Erderaz ere olatsu.
- 562** *Noiz konfesatzen aiz? -Ni arbi-loretik arbi-lorera.*
Alegia, urtean bein.
- 563** *Nolako soñua, alako dantza.*
- 564** *Txerrien ne(g)arra janak ixildu.*
- 565** *Armiamaren pausoa, euriaren asmoa.*
Euriaran aurretik, armiarma aundiak agertzen.
- 566** *Auntzaren umea, antzumea.*
Aurrak, amaren antzekoak, aurpegiz ta izaeraz.
- 567** *Eltzeakin arrie jo, edo arriakin eltzea, beti eltzea austen da.*
Beste zenbait aldetan berdintsu.
- 568** *Elurre menditan, aize otza erritan.*
Beste lekuetan olatsu.
- 569** *Ez daude ero guzik Zaragoza-n.*
Lenago eroak Zaragoza-ra eramaten ziren Naparroatik.
- 670** *Gaueko lana, egunezko lotsa.*
Berdin Saraitzu-n eta beste nonbait.
- 671** *Izotz aundie, elur-gure.*
Izotz aundien ondoan maiz elurra.
- 672** *Ogeita amika eskutik egin.*
Zordunari, berak uste ez duela edo nai ez duela, ordainduarazi, edo ordaña jaso.
- 673** *Uva mazuela, para la abuela; uva garnacha para neskatxa.*

Zer orazio egiten dezue? -"Aita gurea"-n eguneroko ogie eskatzen dugu, jauna, baña artoa ematen digue.